



**ZINEBI NETWORKING 2018 DEIALDIA: DOKUMENTALEN SORGUNEA  
FORO PROFESIONAL DE CINE DOCUMENTAL DE BILBAO  
ZINEBI 60**

**OINARRIAK ETA BALDINTZA OROKORRAK**

**I. OHAR OROKORRAK**

Aurreko edizioetan bezala, ZINEBIk eta Euskal Produktoreen Elkarteak (EPE-APV) euskal ikus-entzunezkoen sektorea eta talentua babesten eta bultzatzen jarraituko dute.

Aurten, nazioarteko jaialdiaren 60. urteurrenean, antolatzaileek **ZINEBI NETWORKING 2018: dokumentalen sorgunea. Foro Profesional de Cine Documental de Bilbao. aurkeztuko dute Euskadiko Produktoreen Elkarteak (EPE-APV), Euskal Telebista (ETB), Bizkaiko Foru Aldundia (BEAZ) eta Bilbao Ekintzarekin elkarlanean.** Proiektu honek euskal zinemaren sormen olatu berria bultzatu nahi du eta zinema berri honen ekoizpenaren aldeko apustua egin. Horretarako, gure helburua tokiko ikus-entzunezkoen egituraren dinamizazioan laguntzea da, zinemagintzaren arloko agente eta bertako zein nazioarteko instituzio desberdinen arteko elkarlana eta kooperazioa bultzatuz.

Proiektu dokumental sortzaile eta independenteak babesteko asmoz, Networking-a etorkizunean garapen artistiko eta profesionala lortzeko plataforma izan nahi du. Esperientzia, jakin-mina eta ardurak partekatu eta proiektu dokumental berriak garatzeko sinergiak sortuz. ZINEBIren iritziz, aukera paregabea da gure gazte talentuek aholkularitza eskainiko dieten profesional eta adituekin harreman zuzena izan dezaten. Hauen gomendioak eta aholkuak jasoko dituzte proiektuak modu arrakastatsuenan garatzea bilatuz. Aholkularitza, hausnarketa eta sormena garatzeko

gunea izango da ZINEBI NETWORKING 2018. Horretarako, ekitaldi honek belaunaldi berrien zinema ekoizpena bultzatzen duten zuzendariekin, ekoizleekin, instituzioekin eta sektoreko beste hainbat agenterekin aurrez-aurreko topaketa dinamika izango du.

Euskal ekoizpen independentea sustatzeko asmoarekin eta honen nazioarteko hedapen ahalmena indartzeko, **irabazleak 10.000 euroko saria eta aholkularitza profesionala jasoko du ikus-entzunezko proiektua egia bihurtu dadin.**

ZINEBI NETWORKING 2018ren **helburu nagusiak hurrengoak dira:**

- a) Euskal talentua bultzatzea, proiektu dokumental sortzaileak eta independenteak ekonomikoki lagunduz.
- b) Sinergiak sortzea zuzendari edota sortzaileen eta nazioarteko zein euskal ikus-entzunezkoen sektorearen artean (hala nola, ekoizleak, programatzaileak eta bestelako profesionalak)
- c) Aukeratutako proiektuen gaineko hausnarketa ahalbidetzea, dokumentalen garapen onena bilatuko duten aholkularitza profesionalekin topaketak bideratuz.
- d) Parte-hartzaileen, bertaratutako profesionalen edota beste agente batzuen arteko kolaborazioa bultzatzea, kooperazio sare bat sortzeko asmoarekin.

Jaialdiaren Zuzendaritzak eta kanpo hautapen-batzorde batek aurkeztutako proiektu guztien artean zortzi (gehien jota) aukeratuko ditu. Hautapena egiteko, batzordeak ideia, proposamen estetikoa, bideragarritasuna eta proiektuek gauzatzeko dituzten aukerak kontuan hartuko dituzte. Gainera, sektoreko profesional baten babesu edukiko duen aurkezpen publikoa egin baino lehen, banakako tutoretza egun bat egingo da.

## **II. BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

1. Networking-a ekoizle eta zuzendari euskaldunei zuzenduta dago (garapen fase aurreratuan edo ekoizpenean dauden dokumental luzeak).
2. Proiektu bakarra aurkeztu daiteke zuzendari bakoitzeko.
3. Ez da bukatuta dagoen dokumentalik onartuko.
4. Proposamenak orijinalak izan behar dute, hirugarrenei plagiatu edo usurpatu gabekoak.

5. Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek **web formularioaren** bitartez izena emango dute, baldintza guztien onarpena adieraziz eta datu pertsonalak zehaztuz, NAN, jaiotze data eta posta elektronikoa, besteak beste.

6. Formularioa bete eta bidali ostean, eskatutako dokumentazioa info@epe-apv helbide elektronikora bidaliko da.

Bidali beharreko dokumentazioa PDF bakar batean bilduko da (\*arekin markatutakoak derrigorrezkoak dira)

- Fitxa tekniko eta artistikoa \*
- Intentzio-oharra\*
- Proiektuaren azalpen-memoria \*
- Gidoiaren sinopsia\*
- Gidoia
- Proposamen estetikoa\*
- Zuzendariaren biografia eta fimografia \*
- Aurretik egindako lanen link-ak\*
- Garapen fasea\*
- Aurrekontua\*
- Kronograma\*
- Ekoizpen-plana
- Finantziazio-plana
- Proiektuaren teaserra (egotekotan). Gomendagarria da gutxienez 5 minutuko teaserra duen esteka atxikitzea. Publikora irekita ez dagoen ikus-entzunezko materiala bakarrik hartuko da kontuan, hau da, pasahitz pribatua duten estekak.

7. Jaialdiak sektoreko profesionalak deituko ditu epai-mahaikide izateko. Hauek, zuzendari eta ekoizleen aholkulari bezala jardungo dute aurkezpenen ostean eta geroago egingo diren aurrez-aurreko bileretan. Epai-mahaiak azaroaren 16an Arriaga Antzokian ospatuko den itxiera galan emango dio saria irabazleari. Epaitza apelaezina izango da.

8. Proiektuen zuzendariak topaketara joateko eta azaroaren 12-13 bitartean Networking programan antolatuko diren ekintza guztietan parte hartzeko betebeharra dute. Posible izango ez balitz, antolakuntzak beste proiektu bat gonbidatzeko eskubidea izango du.

9. Parte-hartzaileek erakundeari proiektuari buruzko informazioa eta promozio-materialak emango dizkiote dagokion katalogoa, esku-programa, web orrialdea eta sare sozialetan erabiltzeko, eta hauen argitalpena onartzen dute.

10. Sailkatutako proiektu guztiek amaierako kredituetan erakundeak emandako logoa sartuko dute, ZINEBI NETWORKING 2018: dokumentalen sorgunea. FORO PROFESIONAL DE CINE DOCUMENTAL DE BILBAO ekintzan parte hartu dutela adieraziz.

11. Proiektu irabazleak, horrela adieraziko du pelikula hasieran erakundeak emandako logoarekin.

12. Proiektu irabazleak 5.000 euro (beza barne) jasoko ditu ETBren aldetik komunikazio publikoaren eskubide lagapenaren truke. Ekarpena handiagoa izan daiteke balorazio batzordeak horrela erabakitzen badu. Ekoizleak ETBekin dagokion kontratua sinatuko du. Gainontzeko 5.000 euroak proiektua irabazlearen ekoizleak jasoko ditu ZINEBIren aldetik.

13. Izena emateko epea urriaren 5tik 26ra bitartean egongo da zabalik (biak barne).

### **III. EGITARUA**

#### **NETWORKING 2018: dokumentalen sorgunea.**

##### **Azaroak 12, astelehena**

Prestaketa tailerra

(networking-ean sailkatutako proiektuak)

##### **Azaroak, 13, asteartea**

##### **Kupula Aretoa – Campos Antzokia**

**10.00-14.00**

Aukeratutako proiektuen aurkezpena eta emanaldia aditu-batzordearen aurrean.

Ostean, *feedback* saioa proiektuen inguruan.

(akreditatuei, profesionaleri eta ikasleei irekia)

**16.00-19.00**

Aurrez-aurreko bilerak

(sailkatutako parte-hartzaileak aditu-batzordearekin batera)

##### **Azaroak 16, ostirala**

**Itxiera Gala**

**Arriaga Antzokia**

20.00

Sari-banaketa (proiektu irabazlearen partaideak galara joan behar dute)